



Bagatoz...

TXIKITTO

2013ko urria

138



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Mainer Aranberri, Koldo
Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako
ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Mainer Aranberri
eta Koldo Mitxelena.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa
eta Koldo Mitxelena.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Nola deitzen da ETE-ren
aita? Donete

Elene Oyarzabal

Nola esaten da txakurra
ingelesez? Dog.

Eta albaitaria? Dogtor

Lorena Monasterio

- Ama, gaur ez dut
eskolara joaterik nahi.
- Zer gertatzen zaizu?
- Logure naizelako,
aspertu egiten naizelako
eta barre egiten
didatelako.

- Ba badakizu zer? Joan
egin behar duzula. Zure
betebeharra delako, 32
urte dituzulako eta
zuzendaria zarelako.

Danel Maestre

Aitona hiltzorian:

- Mariaaa, hor zaude?
- Bai, bai, hemen nago.
- Andreeees, hor zaude?
- Bai, aitona, hementxe
nago.
- Xabieerrrr, hor zaude?
- Bai, lasai, aitona,
hemen nago.
- Denok zaudete hemen?
- Baaaiiii
- Eta denak hemen
bazaudete, zer egiten du
pasilloko argiak ixotuta?

Nerea Garcia

Arrantzale batek
galdetzen dio gizon bati
lakutik hurbil:

- Arrantzatu al daiteke
hemen?

- Noski baietz!

- Debekatuta al dago?

- Debekatuta? Ez, ez!

Mirari bat izango da!

Ainhoa Bizkarra

- Nire jenerala, guda
galdu dugu.

- Ba aurkitu!

Irene E.

Jaimito eskolara doa eta
andereñok:

- Jaimito, matematikako
koadernoak?

- Medikuan utzi dut,
problema asko zituen-eta.

Unai Marquez



Sekula baino lehenago hasi gara aurten **JA Mogel Ikastolan**, irailaren 5ean hain zuzen. Urtero bezala 1go mailako ikasleak harrera berezia izan zuten, lehenengo aldiz hasten zirelako Iturburun. Etxekoen laguntzarekin igo ziren autobusez, ondoren irakasle eta gela berria ezagutu zituzten. Goiza ondo bukatzeko, aretoan jaialdi eder bat antolatu zen 1go mailako 75 ikasle berriei ongi etorria emateko. Bertan, 6. mailakoen dantza eta bertsoen artean egin zitzaizen harrera txikitxo. Urduri baina pozik hasi dugu denok 2013-2014 ikasturtea eta urtean zehar eginiko hainbat ekintza eta gertakizun berri izango dizue orrialde honetan.



San Andres ikastetxeko 5. eta 6. mailakoak Zuhatzan izan ziren irailean. Argazkian ikus dezakezuen moduan primeran ibili ziren.

Urkizu ikastetxeko Lehen Hezkuntzako ikasle eta irakasle guztiak Arraten izan ziren irailaren 20an. Euri pixka bat egin arren, primeran pasatu genuen! Urriaren hasieran, 2. ziklokoak Coliseon izan ziren "Zarafa" pelikula ikusten, Urriaren 28, 29 eta 30ean 3. ziklokoak Arantzara joango dira eta 30ean, 2. ziklokoak Pagoetara joango dira.

Kaixo lagunok! La Sallen ere, oporrak atzean utzita, gogoarekin ekin diogu kurtso berriari eta hemen gaude berriz zuekin gure esperientziak konpartitzeko prest! 1.go eta 2. mailakoak Garaira joan ziren irailean. Herritik zehar ibili ondoren joko mordo bat egin zituzten. Eguraldi makala izan arren, ederto pasatu zuten! 2. ziklokoak Donostiako Zinemaldira joan ziren eta iraila amaieran, Izartxo festa ospatu genuen eskolan. Joko ugari egin genituen eta primerako bazkaria prestatu genuen! 3. Ziklokoak Arratera igo ziren oinez. Ekin gogor eta hurrengora arte, lagunok!




DENBORAPASAK

Aurkitu ondorengo lanbideak:
suhiltzailea, dentista, saltzailea, abeslaria, medikua,
irakaslea, soroslea



a	s	f	t	F	u	h	w	y	g	y	h	m	h
b	a	g	f	e	t	n	f	y	f	g	m	m	q
e	a	s	f	d	i	h	g	d	s	p	f	d	q
s	a	a	u	f	s	f	g	d	d	k	n	a	a
l	t	l	w	h	s	y	r	t	r	h	s	m	s
a	s	t	h	j	i	r	a	k	a	s	l	e	a
r	i	s	w	a	w	l	h	r	h	n	k	d	d
i	t	a	s	t	u	g	t	f	r	k	e	i	i
a	n	i	g	f	e	l	k	z	m	t	a	k	b
g	e	l	h	k	e	n	h	k	a	g	e	u	v
x	d	e	h	k	k	r	l	v	b	i	m	a	t
c	x	k	s	u	e	g	o	h	t	a	l	y	r
w	ñ	l	d	x	s	i	p	g	y	j	j	e	t
s	o	r	o	s	l	e	a	v	y	f	n	t	a

JANARIAK




HORIZONTALAK

- 1-Ogia tartean, letxuga, tomatea, gazta eta haragia du.
- 2-Arrantzaleek hartzen dute.
- 3-Barazkiak, patatak, dilistak ...erabiliz egiten da. Ume txikiak asko jaten dute.
- 4-Tomatearekin asko gustatzen zaizkigu.



GURUTZEGRAMA : ANIMALIAK



ERRENKADAK

- 1-Zaunka egiten duen animalia.
- 2-Denetatik jaten duen animalia.
- 3-Oihianeko erregea.
- 4- Irrintzi egiten duen animalia.

ZUTABEAK

- 1-Txioka egiten duen animalia.
- 2- Bere gibelarekin pateka egiten da.
- 3-Arrantzaleek harrapatzen dute.

Markel eta Julen

Bizipoza, Pirritx, Porrotx eta

Gezurra badirudi ere, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berria gain-gainean dugu. Aurten aldaketa-ekin etorriko dira pailazoak Eibarrera, baina ez pentsa, betiko umore, abesti eta dantza dibertigarri eta politak ez dira faltako. Prest zaudete? Bada, zuekin, Pirritx, Porrotx eta Marimotots!

Azkeneko urteetan abenduan etorri izan dira pailazoak Eibarrera ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik, baina aurten, apuntatu ondo, azaroan etorriko dira. Eta dataz gainera, egunek ere izango dute al-

daketarik. Aurten ostiral eta larunbatean etorriko direlako, azaroak 15 barixakua eta azaroak 16 zapatua.

Hilabete lehenago eta ostiral eta larunbatean, bizipozez etorriko zaizkigu Pirritx, Porrotx eta Marimotots Unibertsitate Laboralera, izen hori baitu ikuskizun berriak: Bizipoza. Hona hemen istorioaren laburpena:

Pailazoak irripidean barrena abiatzera doaz Panpoxa furgonetan. Txernobyl-dik datorkien laguna jasoko dute aireportuan. Marimotots Panpoxa martxan jartzen saiatu



a Marimototsen eskutik!

IKUSKIZUNA:

AZAROAK 15, ostirala, 17.30etan eta 19.30etan.

AZAROAK 16, zapatua, 16.30etan eta 19.00etan.

SARRERAK:

Bazkideentzat: urriaren 21etik 31ra arte,
...eta kitto!-n, 7,5€

Gainerakoak: azaroaren 1etik aurrera, E&M,
Tio Palancas eta Gozoki, 8€

da, baina ezin: motorra puzkerka hasi da, ke artean eztulka. Matxuratuta dago plaza-
ren erdian. Arduratuta daude gure lagunak,
aireportura nola iritsi ez dakitela. Plazan
daudela, handik eta hemendik, laguntza ez

zaie faltako, eta konturatuko dira bizkarra
emanaz elkarri denok garela elbarri. Kan-
tuan eta dantzan, bizipozez eta auzolanean,
mundu berri bat dugu zain.

...eta kitto!-ko bazkideentzat sarrerak
salgai daude egunotan (urriaren 31ra arte),
...eta kitto!-n, 7,5 eurotan. Bazkide bakoit-
zak 3 sarrera erosi ahal izango ditu (baz-
kide-kuota irailaren 30erako ordainduta
eduki behar da). Azaroaren 1etik aurrera,
berriz, E&M, Tio Palancas eta Gozokin
egongo dira sarrerak salgai 8 eurotan.



Nagusixen eta umien artian
desbardinttasun haundixak
izaten dirala pentsatzen dogu.
Baiña zer gertauko zan galdera
bardiña egitten badetsagu
nagusixari eta umiari?
Horrenbesteko aldia
egongo ei da?

**Zelan hasi dozu
ikasturte barrixa?**

**Zelan gogoratzen
dozu umetakua?**

**SILVIA ORTIZ DE LAZCANO,
7 URTE**

Erdipurdi; lagunak ikusteko gogua nekan, baiña
goiz esnatu bihar naiz, gabian lotara lehenago
juan... Oporretan hobeto bizitzen da.

**MADDI FUBAO MAGUREGI,
7 URTE**

Ondo hasi dogu, nahiz eta gogo askorik ez nekan;
hobeto gaaz oporretan. Lagunekin batu eta jolasteko
gogua nekan, baiña etxeko lan asko egitten dogu
eskolan eta hori ez jata horrenbeste gustatzen.


**CRISTINA SARASUA,
44 URTE**

Ez dakat oroitzapen txarrik; ona zan bueltatzia,
urduri egoten nitzan, baiña klasiak ixa hillabete
osuan goizez baiño eukitzen ez genittuan eta
rekerdo ona dakat.

**ANGELICA ANITUA,
47 URTE**

Ondo gogoratzen dot, pozik bueltatzen nitzan
eskolara. Bai oiñ eta baita lehen be antzerakua
izaten dalakuan nago. Oporretako lasaittasuna eta
abar albo batera laga bihar izaten da eta
egunerokotasunera bueltau, baiña
egin biharrekua da.





IKASTURTE BERRIARI AURRE EGITEN

Honezkerok atzean laga ditugu udako beroak eta oporretako oroitzapenak ere gero eta urrunago ditugu, orain ikasturte berriari aurre egitea dagokigu; ordutegiak betetzea, jantzi eta liburuak erostea, eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea, etxekolanak...

Oporren osteko sindromeak helduen %15ari eragiten dion bezala, adituek diotenez, umeen %5-8 artean ere sindrome honen sintomak izaten dituzte ikasturte hasieran: tristura, apatia, nekea, antsietatea, arretari eusteko zailtasunak eta suminkortasuna.

Guzti honengatik gurasook babes eta motibazioa eskaini behar diegu, ikasturte berriak eskainiko dizkien aukera guztiak gorai patuz eta ahal dugun neurrian animatuz.

Irakaslearekin hartu-emona izatea ere oso gomendagarria da, umeak eguna nola ematen duen jakiteko eta elkarrekin behar duen babes hori eskaintzeko.

Eskolaz kanpoko jarduerak garrantzi handia hartzen dute seme-alabak nagusitzen doazen neurrian. Ez dugu inoiz ahaztu behar formazioaz gain, umeak ondo pasatzea bilatu behar dugula, gustora aritzea. Umearen zaletasunak hartu behar ditugu kontutan eta ez horrenbeste guri gustatzen zaiguna.

Eskolaz kanpoko jarduera hori euskaraz gauzatzea benetan garrantzitsua da, umeak eskola ez den beste hainbat jarduera euskaraz egin daitezkeela bizi dezan, normaltasun osoz. Horregatik zure seme-alabak egitea nahi duen jardueraren bat euskaraz jasotzerik ez badu, eskaera hori egitera animatzen zaituztegu.

Seme-alabek urteak betetzen dituzten heinean, etxekolanen pisuak ere gora egiten du. Ez dugu ahaztu behar, eskolaz kanpoko jarduerak etxekolanak egiteko denbora eta indarrak laga behar dizkietela. Hau da umeak larregi ez kargatzea komeni dela, etxekolanak lasai egin ahal izateko.

Etxekolanen pisuaz ari garela, ikasleen motxilen pisuaz ere aritu behar gara. Izan ere, adituek diotenez umeen motxilak ezin du umearen pisuaren %10 gainditu.

Amaitzeko, txoko honek eskaintzen digun lekua aprobetxatu nahi dugu gurasoei ondorengo helbidean klik egitera gonbidatzeko:

http://www.youtube.com/watch?feature=player_detailpage&v=7zTjyimaenEU





Frisby-a

Udako sasoi pasatu bazaigu ere, aire librean jolasteko moduko eskulana duzue orri honetan. Frisbi polita egin ahal izango duzue, eta mendira, parkera... zoaztenean primeran pasako duzue.

ZER BEHAR DUGU?

- ✂ Errotulagailuak
- ✂ Artaziak
- ✂ Film transparentea
- ✂ Kartoizko platerak
- ✂ Zeloak



Nola egiten da?

Lehen urratsa

Platerak mahai gainean ipini eta film transparentearekin estali.

Bigarren urratsa

Apaindu platerak nahi dituzun moduan

Hirugarren urratsa

Moztu borobil bat plater bakoitzaren erdikaldean

Laugarren urratsa

Elkartu plater biak

Bostgarren urratsa

Zeloarekin ondo itsasi platerak.

Soberan gelditzen zaizun zeloak moztu duzun borobil horretan tolestu.



etxeko SUKALDARIA

ARRAUTZONTZIAK

Begira begira, zein arrautzontzi bereziak egin ditzakezuen oso osagai gutxi eta errezeekin. 30 minutu besterik ez duzue beharko hain jaki goxo eta dibertigarriak egiteko.

OSAGIAK

- ✓ 4 arrautza
- ✓ 4 urdaiazpiko-xerra
- ✓ Maionesa koilarakada txikia
- ✓ Gatz apur bat
- ✓ Piperbeltz apur bat
- ✓ Pepino bat xerratan moztuta

- 1.- Arrautzak jarri uretan gatz apur batekin eta egosi 10 minutuz.
- 2.- Behin arrautzak egosi eta gero, ur hotzetan sartu eta zuritu.
- 3.- Moztu arrautzak erditik alde luzetik eta atera gorringoak.
- 4.- Sardexka batez lagunduta, nahastu gorringoak maionesarekin, purea osatu arte.
- 5.- Moztu urdaiazpiko-xerrak triangelu formarekin, argazkian ikusten den moduan. Hartu makiltxo bat eta sartu urdaiazpikoa goitik eta behetik.
- 6.- Nahasketa sartu mahukan (manga pastelera) eta arrautzak bete.
- 7.- Azkenik, sartu urdaiazpiko-belak arrautzetan eta zerbitzatu pepino-xerren gainean.



ARIES

Ikasturte hasiera gogorra izan duzu. Baina zaude lasai, laster hartuko diozu martxa eta uste baino hobeto joango zaizu gainera. Hori bai, matematiketan gehiago saiatu zaitze.

TAURUS

Ikasturte honetan ingelesak emango dizu buruhauste gehien. Askok gustatzen ez bazaizu ere, gogor eman beharko diozu, garrantzitsua da eta ingelesa menderatzea.

GEMINIS

Euskaldun peto-petoa eta gazteleraz beti! Badakizu hizkuntza bat ez dela galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik!

CANCER

Maitasuna zure buruaren bueltan ibiliko da datozen asteotan. Sabelean igartzen dituzun tximeleta horiek zer direla uste duzu ba? Adi egon eta begiak ondo zabaldu. Zer gertatuko da...?

LEO

Leo, Leo, txantxatzen jardutea ez dago gaizki, baina muga non dagoen argi izan beharko zenuke. Baten bat mindu dezakezu eta lagunak ez daude galtzeko, zaindu egin behar dira!

VIRGO

Ikasturte honetan lan gehixeago egitea tokatuko zaizu, baina ez estutu. Oso langilea zara eta hori zure alde izango duzu. Animo!

LIBRA

Kirola egitea zein garrantzitsua den badakizu, ezta? Sofan eserita egotea ere ondo dago, baina noizean behin, ez egunerok! Mugitu ipurdia, alperrontxi!

SCORPIUS

Datozen egunetan 7 zenbakiak zortea ekarriko dizu eta zure kolorea gorria izango da. Musikarekin lotura duen edozerrekin konponduko zara ondo. Kontuz katarroekin.

SAGITARIUS

Negua etortzeko desiatzen zaude, ezta? Utziz udari pixka bat luzatzen, udaberririk ere ez dugu izan-eta! Izango duzu txamarra potoloa jartzeko aukera, izan pazientzia!

CAPRICORNIUS

Itsasoko ura maite duzu, baina eguraldi honekin ez dago uretara sartzerik. Zoaz igerilekura, han ederki ibiliko zara eta!

ACUARIUS

Urria hilabete polita izango da zuentzat. 6 zenbakiak zortea ekarriko dizue, baita kolore gorriak ere. Hala ere, kontuz etxeko-lanekin, ez zaitzez larregi erlaxatu.

PISCIS

Besteak iritzi ezberdina izan arren, ez ahaztu errespetua dela garrantzitsua. Denok ez dugu berdin pentsatzen, eta gogoratu, altuago berba egiteak ez duela arrazoia ematen.

INTERNETEN...

Gure planeta zaindu, txikienetatik hasita!

Kaixo lagunok! Ongi etorri Ingurumenari buruzko blog honetara. Bertan natura zaintzeko zenbait argibide eta beste hainbat argipai aurkituko dituzue. Eta umek gure etorkizuna osatuko dutenez, bereak birziklapenean eta antzeko ekintzetan gustora parte hartzeko ideak ere proposatzen dira, baina ez ahaztu naturaren osasuna dela munduko ondasuna eta denok laguntza eman behar dugula zeregin horretan!

Gogora ezazu ekintza individual bakoitza

2020/05/31

NATURARI BURUZKO ABESTIA

Nire blogeko sarrera honetan, naturari buruzko abesti bat txertatzea erabaki dut. Abestiaren izena Natura da eta abeslariak UGA ezizena dauka. Beraz, izenburuak adierazten duen moduan, naturaren oreka zaindu behar dugula azaltzen digu kanta honek; natura gure lurra baita eta dugun bizileku bakarra delako. Eta horrekiko zentzudun izan gaitzen eskatzea du helburu. Beraz, argi eta garbi dago ingurumenarekin lotura estua duela eta horregatik aukeratu dut eta *Podomatic* programara igo behar izan dut, ondoren nire blogean ezarri ahal izateko.

Abesti martxosoa da, eta gustuko duzuenontzat hemen uzten dizuet bere letra, [musikazblai](#) web orrialdetik aterata:

Ugatzun, hegazti,

argitxo-sarean.blogspot.com

Guiztiok dakigu zein garrantzitsua den gure planeta zaintzea, ezta? Blog honetan ingurumenari buruzko informazioa aurkituko duzue. Natura zaintzeko hainbat argibide eta beste hainbat azpigai ere bai. Eta zuek, umek, gure etorkizuna osatuko duzuenek, birziklapenean eta antzeko ekintzetan gustora parte hartzeko ideiak ere proposatzen dira, baina ez ahaztu naturaren osasuna dela munduko ondasuna eta denok laguntza eman behar dugula zeregin honetan!

www.youtube.com/watch?v=7zTytmaenEV

Natura eta ingurumena zaindu behar ditugun moduan, gure hizkuntzarekin, euskarekin ere berdind jokatu behar dugu. Entzungo zenuten esaldi ospetsu hau: "Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik". ...eta kitto! Euskara Elkarteak Berbetan mintzapraktika programa dauka martxan aspalditik, euskara ikasleei euskera praktikatzeko aukera eskaintzeko. Lotura honetatik parte-hartzaileekin egindako bideo bat ikusi ahal izango duzue.



PROMO berbetan



169 ikustaldi





KATANDERE ZAPIKATUEREN GAZTELUA

Nork du mamuen beldur? Nik! Batez ere katu-mamuak baldin badira, Baso Ilunaren erdiko gaztelu galdu batean... Hala ere, momia, sorgin, saguzar eta banpiro artean, Gazteluaren sekretu bitxia argituko dut azkenik!



EZEKIEL

Ezekielek hamalau urte ditu. Etxean amarekin eta arrebarekin bizi da, emakumez inguratuta. Hamalau urteko mutil gehienek bezala, bizitza bi partetan banatuta dauka; batetik etxeko istiluak daude, eta bestetik kanpoko giroa: eskola, lagunak, koadrilaren lokala eta... neskak.



PASIO KRIMENA

Xoel filosofo gazteak eta June ingeniariak maitasun istorio pasional bezain suntsigarria bizi ondoren, kontaktua etetea erabaki zuten. Orain, Juneren familia obsesiboak heriotza mehatxuak jaso ditu, eta neskak laguntza eskatzen dio. Xoel Ainitzerekin azalduko zaio, hura ere maitale ohia eta fisikari berezi samarra.




IZAR BAT ZOPAN

Izugarri gustatzen zait zopa. Fideo-zopa, letra-zopa, izartxo-zopa, berakatz-zopa, txitxirio-zopa, barazki-zopa, arrain-zopa edota arroz-zopa. Gustatzen zait nire izena: Mitxu. Izen labur eta gutxi entzuna.



ELURRA IBARREAN

Duela urte asko, baina asko, Berta izeneko neskatila bat bizi zen Amaia ibarrean. Diotenez, urte haietan hain izan ziren gogorak hotzaldiak non ibai eta lakuak izotz bilakatu ziren, elurrak mendietako gainak, ibaiak eta lautadak estali zituen.



SARA

Sara sei urteko neska alai, barregarria, jolastia eta oso irudikorra da. Inoiz ez da aspertzen, abenturen pertsonaia nagusia izaten da beti. Amonaren mantu beltza eta begietako moztarro beltza jarri-rik, "El Zorro" dela pentsatzen du.

KRISKITIN SUGEAREN POZOIA

arai hartan Kriskitin-sugea zizare handi bat baino ez zen, inori kalterik egiteko gai ez zena. Gaur egun ordea... badakizue, haren pozoia hilgarria da oso, eta kontuz ibili behar da. Baina Kriskitin-sugea maltzurra ez zen garai hartan edozeinek sartzen zion ziria, batez ere izarrek. Badakizue... zeruan egonda, beti distiratsu, nahiko harrotuta zeuden. Artizarra zen okerrena. Beti sugea iraindu nahian:

“ Hutsaren hurrengoia zara; ez duzu hankarik, ez duzu eskurik...”

Sugearen ahulezia ikusirik,


Ama Lurrak narrastiari laguntzea erabaki zuen: Bi hagin luze eta pozoia eman zizkion. Baina ez pentsa Artizarra kokildu zenik, ez horixe!! Adarra jotzen jarraitu zuen:

“ Ez duzu inoiz bururik jasoko. Lurreko txerrikeriak batzen jarraituko duzu”.

Burua ondo berotu zionean, sugeak kosk. Harrezkero Artizarrak ez du ikararik egin, geldirik dago, beti toki berebean. Argi geratu zen Kriskitin-sugea arriskutsua zela eta izarrek asko apaldu ziren. Hala eta guztiz ere, ehiztariak sugearen atzetik jarraitzen zuten; makilaz, eskopetaz... Borroka horretan jende asko hil zen, baina alferrik...

Kriskitin-sugeari begirunerik ez ziotela ikusirik, Ama Lurrak mezu bat idatzi zuen

zeruan. Artizarrari gainerako izarrei baino distira handiagoa eman zion. Begiratu zerura eta berehala ikusiko duzue. Kriskitin-sugearen aurrean arretaz ibili behar dela diosku.



Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...

TARTALO

Elezaharrak dioenez, joan ziren bi anaiia mendira ehizan egitera, eta izugarrizko ekaitza etorri omen zitzaien gainera. Babesteko asmotan, inguru haietan zegoen etxola handi batean gorde ziren. Berehala, atzetik artalde bat sartu zen, eta, haiekin artzaina, begi bakarreko gizon handi bat. Sartu ahala, harri handi batekin itxi zuen sarrera, eta berehalaxe konturatu zen bi anaiak barruan zeudela. Orduan, Tartalok esan zien anaietan nagusia jango zuela afaltzeko, eta gaztea hurrengo egunerako utziko zuela. Horrela, bada, sartu zion burruntzia anaiia zaharrenari, erre zuen sutan, eta jan egin zuen. Betekadaren ondoren, lurrean etzanda, zerraldo gelditu omen zen lotan. Hura ikusirik, Antimuñok, anaiia gazteak, burruntzia sutan goritu eta begi bakarrean sartu zion. Tartalo marruka altxatu zen, eta, burruntzia begian iltzatu zuela, gaztearen bila hasi zen, baina itsu zegoen eta ardi tartean ezin izan zuen aurkitu anaiia gaztea. Goizean, ateko harritzarra kendu, eta irteeran kokatu zen hanka zabalik. Ardiei banan-banan haien izenez deitu, eta hanka tartetik ardiak kanporatzen hasi zen, anaiia gaztea harrapatzeko asmotan. Gazteak, ardi larri bat bizkarrean zuela, lau hankatan, beste ardiekin batera, kanpora ihes egin zuen artzainaren hanka tartetik. Tartalok igarri zuen, eta gaztearen hanka hotsa jarraituz, haren atzetik abiatu zen lasterka. Gazteak, osin batera jauzi egin, eta alde egin zion igerian. Tartalok igerian jakin ez, eta putzu sakonean ito omen zen.

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.
MEREZI DU...



TAR TALLO



zu margolari!